

## Susana Preboste itzultzalle azkarra

Orain dela gutti ateria da liburu berria: «BAHITUA» (David Balfour'en Abenturak). Eleberriaren egilea, Robert Louis Stevenson (1850-1895), Eskozia'tarra dugu, Edinburgo'n jaioa. Gora-bera arri-garriak agertzen zaizkigu liburu ortan. Mutil gazte batek ontasan oso ederrak jaso bear ditu, baiñan zoritxarrez osabaren eskuetara erortzen dire. Gaiñera onek urontzi batean sartzen du illoba, Ortzen asten zaizkigu gazte onen lanak, ontasan guztiak eskuratu arte. Bizitasun aundiko ekintza ortan, gizanortasuna ongi azpimarratua agertzen da. Lagunak ezagutzen, lanak ematen ditu. Ona ta gaiztoa ondoan dauzka, bikotasun berexi bat bezala, baita eleberriaren gilitza. Ludi ontan beti aurrera joateko, gizonaren barne muiña ongi ezagutu bear.

Liburu onen arrakasta nazioartean zabala izan da. Itzuli dute izkuntza geienetara. Irakurle bezala denetarik daude: gazteak, elduak eta adifnekoak.

IGELA argitaletxea, orain dela bortz urte sortu zen Iruña'n. Be-realaxe erabaki zuten itzulpen on batzuek egitea. Joan den gizaldiko gaiak aukeratu zituzten, batez ere Euskalerrian euskaraz bertze izkuntzetan idatzitako liburuak, gurean euki ditzagun. Asmoa egokia deritzagu ta bearrezkoa.

Nori eman itzulpena egiteko? Naitanaiz itzultzaile on bat bear. Susana Preboste neska gaztea aukeratu zuten. Oraingoz itzultzaile bezala Nafarroa'ko Jaurilaritzan egiten du lana. Zortzi ilabeten buruz, amaitu du itzulpena. Lana

arrigarria benetan. Orain euskaraz dago argitaratua. Eleberri ori euskaraz egiña dela dirudi. Ikaragarriko erreztasunarekin dabilki gure izkuntza. Gai zailenak zorionezko jabetasunarekin idazten ditu; urontzietako bizitza, itsasoko ekaizta, axerrien eiza, irietako giro illuna, elkar-izketa gordiñak, erio ta itxaropena, batez ere emeretzigarren gizaldiko atsa ta garra. Asieratik euskaraz idatzia dela dirudi. Susana Preboste itzultzaile gazteak, nai duna egiten du bere euskara zoragarri orrekin. Ba du esaldiaren jabetasuna ta itzen etorria. Izkuntza garbia erabiltzen du, esku onekoa, errexa ulertzen. Jar-tzen du, ere, Nafar ikutua. Ain gazte izanik euskararen mami ezitia dabilki. Inglesa, ere, naiko ongi daki.

Nor dugu Susana Preboste Iruña'n jaioa da 1964'garren urtean. Ama Larraun ibarran sortua, Aldaz'en, Matxinetxiki etxean. Euskara etxean ikasi du ta nai ala erabilli Aldaz'en. Ikasketak. Paz de Zigada ikastolan egin ditu. Goi-maillako ikasketak, Nafarroa'ko Ikastetxe Nagusian, Erromaniko izkuntza saillean.

Maite du euskara, batez ere gure idazleak naiko ongi ezagutzen ditu; danez gain Orixe. Susana'entzat, euskararik atsegiñena Orixe'ren Santa Krutz apaiza delako liburuan irakitzen du. Lantz'eko Ingurutxoa ikusi zuenean, gaztetxo zelarik, euskal sua ere pixtu zitzaion.

Itzultzaile egoki onekin Nafarroa'ko euskal atsa indartu zaigu benetan. Latxaga

## Nafarroaren eguna

Denbora batez Erresuma batekoak ginen, Nafarroako Erresumaren barnean Baigorriko eskualdekoek eta Nafarroa guzia. Orain zoritxarrez berex gaude bi nazioen menpean, baina alare anaitasunak irauten du eta hori erakusteko urtero urte ospatzen da Nafarroaren Eguna, bi alderdietako nafartarrak bat eginik. Aurten ere ospatu da Billera hori eta aurtengoarekin 17 garrena. Besta eder hau Baigorriko «Basaizea Elkarteak» antolatzen du. Millaka lagun bildu dira, aurten ere hor ziren baigorriarren artean gure alderdiko nafartarrak ere. Goizetik bazen mugimendu, soñulariek karriketetan, txistulariak, gaite-roak, Triki-trixa, Ustarizko eta Ezpeletako Txarangak. 11-etan Esku-lan erakusketa Elizako plazan. 12-etan Bertsolariak, Arrolako Dantzari Txikiak, Garaztar Dantzariak eta hainbertze Dantzari-Talde: Baztan, Tudela, Lizarra, Gares, Otxagi, Ustaritz, Baiona eta Baigorrikoak. Zangotzako Erraldoiak ere hor ziren Billerari ospe handia eman ziotela. Eguerdian bazkaria 1.000 lagun bildu zirela. Bazkailondoan bazen umore ona eta kantu bazkaltiarren artean. Hor ziren ere Martikorena, Xalbador, Aire Aizpak eta bai «Joteroak» ere. Eguna zorientasun osoan joan zen. Gazte aunitz aurtengo Billeran, «Basaizea» Elkarteak hori aipatu du eta bai aurtengo laguntza Urepel eta Aldudeko gazterien aldetik arras ona izan dela. «Basai-zea» Elkarteak urtero bezala aurten ere Kultur astea antolatu du eta beti bezala arrakasta handia er-



dietsirik.

Gure Baztan aldetik yende aunitz Baigorri eta erran dezadan ere Baztango mendizaleak oñez gan zirela Baigorri, Elizondotik abiatu eta oñez mendiz mendi Baigorriarño. Nere berrixa hauek buruzteko ager ditzadan Xalbador zenaren bertsoak Nafarroari emanak.

1.- Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde, diot: «Aurrean Baztan» daukagu, gibelean Erro alde, ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide; zure guziak Nafarroaren hegalean azpian daude.

2.- Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik, nafartarren odol kartsua zainetan zenditzen dut nik; eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarriat iganik, norbai-

tek «Atzar adi» diola entzuten dut urrundarik.

3.- Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra, titulu horrek lehen hitzetan du bere indarra; ni beheretar zendako deitu, nerez bainaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat, Nafarro bat da bakarra.

4.- Baina enetzat, O Nafarroa ez da ezin igarria, izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria; enbor sendoan sartu baitzuten aizkora beldurgarria, zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.

5.- Bi aldetarik nagusi bana jarri gero Nafarroan, ez dakit gure etorkizuna zoin ateri buruz doan; ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan, bat ginenezko egun ederrak ditut bakarrik go-goan.

M. Izeta

## Suge zarra larruz aldatuta (Eta'ren itxura berriak)

Aitortu bearra da argiak direla, erre-neak direla, azkarrak direla. Gaiztoak dire, gaizkilleak, giza-iltzaille geldi eziñak, odolixurle asekaizak... Baña ezin daiteke tontoak direnik esan.

Urte askoz egon ninduzuten Yorke Berriko «Time» aldizkaria irakurri. Aldizkari ederra da, atseginki irakurtzen dena, mundu guztiaren birako milla albiste berri ematen dituen. Orain ere maiz sortzen zait berri ere Time irakurtzen asteko gogo, bañan ez dut orotaroko denboriketa nere gogo guzti oiei egur egin bearrean aurkitzen naiz.

Ez dut denborik, Elizaren edestia euskeraz idazten asi nintzen ezker, ez bait zait beste ezertarako astirik gelditzen. Ain zuzen laister emanen dut argitara, Euskalerrira kristautasuna noiz eta nola etorri zaneke berri eman naiez idatzi dutana.

Ez nedin ordea nere bidetik irten. «Taima» orrek, urteak direla, ETA aztertuz argitaratu zuan zenbaki bat. Eta zenbaki artan, ETA zela, esaten zuen munduak izen duen uri-borro-

karako talderik yayoena eta trebeena. Ez gera noski makalak, euskaldunok, gaiztakerirako ere.

Ez dakit, azken-egunotan onako izki edo letra auek entzun dituzun: «Z», «X» eta «Y». Ez? Ba, iru izki oiek, gaiztakerigintzan gogorrako, -eta ziurrako- jarraitzeko ETA'k sortu dizkigun talde berri batzuen ize-nak dire:

«Z» izkia, orain arte ere ETA'k izen dituen «komando» edo taldetxoan adigarria da. ETA'k berak taldetxo oien bitartez egiten dituen erailketak, «Z»ak egiñak direla esaten dute ETA-barruan. Adibidez, atzo, Ostiral Santuz, brigada gizagaixo bat izen zen Donosti'n ETA'k eraila. Erailketa ori «Z» taldetxo batek egin zuen.

«X», ETA'koak ez diren neska-mutillan izkia da. Oiek egiten dituzte, beribillen erreketak, dendeetako kristal eta ate ausketak, eta koktel molotof'en jaurtiketak. «X» talde batek sartu zuen Errenderi'n Eusko-Jaurilaritzaren ertzaindiaren beribil batean koktel oietako bat. Segu-

ruaski illa izengo da agoni luzearen ondorean, zuk au irakurtzerako beribil artan sutan kiskaldu zuten ertzaña. «Y» taldekoek zertarako diren ziur ez dakigu, baño bonbak eta erregailuak egin eta erabiltzeko ederki prestatuak izen omen diren neska-mutillaz osatuak omen daudela uste da.

«X» taldekoak ere ez daude gaizki eratuak. Taldetxo bakoitzean geinez 4 gazte. Talde batekoak ez dute beste taldeetarik inon ezagutzen. Talde bakoitzak bi «enlaze» edo ordezkari ditu: Bat «barrungoa» eta beste bat «kanpoko». Barrungoak, bere taldekoak eta «kanpoko» bakarrik ezagutzen ditu. «Kanpokoak» bi pertsona besterik ez ditu ezagutzen: bere taldetxo «barrungo» ura, eta ETA'ren ordezkari bat: ETA'ren izenean aginduak ematen dizkiona. Eta ETA'ren ordezkari onek ere, soilki taldetxoetako «kanpoko» aiek bakarrik ezagutzen ditu.

Guzti ori... i gaiztakerirako!  
Latiegi'tar Bixente

## Albiste laburrak

Irurtzun'dik Andoain'go autobia-ekin danak pozak txorutzen gelditu ondoren, errepide-ekintzetan aurrerantzean ere gototik jokatzeko asmoak daude Nafarroa'n: Iruña Jaca'rekin lotuko luken autobia iru urtean lukatu diteke eta aurrekontua 43.900 millioi peztakoa izango litzake. Baztan'go bidea eta Belate'ko tunelak, datorren urtearen bukaerako amaituko dira. Eta 50 km. luze izango luken beste tunel bat egiteko asmoak agertu dituzte España, Frantzia eta Andorra'k.

Urtero eskeñi oi dan «Principe de

Viana saria» erabakitzeke, il onen 19'an bilduko da Nafarroa'ko Jaurilaritzako Kultura Batzordea eta aitagai auek: Julio Caro Baroja, Pedro Iturralde, Maria Bayo, Francisco Salinas, Alfredo Landa, Valeriano Ordoñez eta IPES erakundeak.

Gaur zortzi eta «Oinarriak» erakundeak eratuta, Iruña'ko kaleetan zear, euskeraren aldeko kale-agerpen edo manifestazio ugari bat izan zan. «Naparrek euskeraren alde», «Euskera danona eta danontzat da» eta antzeko iragarkiekin agertu ziran,

euskerak jasaten dituan zailtasunak konpontzeko.

Azken egun auetan, bi naparrek, eta biak emakumezkoak, eun urte bete dituzte: Salazar'ko Fidela Adot Goyena eta Miranda de Arga'n jayo eta Iruña'n bizi dan Dionisia Garcia San Juan'ek. Zorionak!

Osasuna'k Getafe'ri 3 ta uts irabazi ziola joan dan igandean eta itxaropenak gora. Ba ote?

Berri-emalle

### Berri ona

## Maitatu, bai; baiña matasunez

«Zuek ere maita ezazue elkar» (Jn. 13, 31-35)

NOIZ ez da idatzi eta itzezin maitasunari buruz gaur adiña... baiña munduan eta gizakien artean iñoiz ez da falta izan gaur adiña.

Maitasunaren ezaugarriak nunnai ikusten ditugu. Kalera irtetzea naikoa da maitasuna badela konturatzeko. An-emen lotsarik gabe, gure gazteak or ikusten ditugu elkarri eskuak emanda, musuka, besarkatuta... eta batek galdetzen du: ala ta guztiz ere, zergatik gorrotoa gaingiditzen zaio maitasunari gure artean?

Maitasunak pertsonak eta bere ingurua maitatzea eskatzen du. Eta ez unetxo batean bakarrik, beti baizik.

Maitatzeak urkoarengan konfidantza izatea eskatzen du. Maitatzea gu gerana eta guk duguna besteekin banatzea da. Maitatzeak nere lagunak eta adiskideak diren bezala onartzea eskatzen du.

Maitatzea gizon-emakume guztiok anai-arreba direla sinistea da.

Maitatzea urkoaren okerrak eta utsak barkatzea da. Maitatzea irrifarra eskaintzea da: lagunei eta arerioei edo etsaiei.

Maitatzea urkoari presarik gabe entzutea da.

Maitatzeak garaian isiltzea eskatzen du.

Maitatzea laguntza eskaintzea da, lur-jota daudenei itz eder eta animagarriak zuzentzea da, eskutitz edo karta bati zintzo erantzutea da...

Onela zion Marx-ek: «Maitasunik gabe maitatzen baldin badugu, maitasun ori guretzat ikaragarriko amildegia izango da». Maitasun leorrak edo aldakorak ez du fruiturik ematen.

Azalkeriz bizi direnak, itza ukatzen dutenak, sexuarekin naasten dutenak, negozioa egiten dutenak, familia austen dutenak, Jainkoarengandik apartatzen dutenak, bizitza suntsitzen dutenak... ez dute maite eta ez dira gai maitatzeko.

Itz ederrak, benetan, Helder Camara gotzaiak idatzi zituenak: «Itzeta baiño naigo dut illa izatea. Au ebanjelioa da. Ez dugu eskubiderik geurekoikerian bizitzeko, Jaungoikoarenganako eta urkoarenganako maitasuna bizi bear dugu... Ez-indarkeria justizian eta maitasunean sinistea da. Orrela bakarrik iritxiko gera Kristo bezala egizale izatera. Ebanjelioaren iraultza egitera, baiña maitasunari uko egin gabe».

Mundu onetan maitasuna gezurrez bete eta faltseatu egiten denean, auxe izango litzake Kristoren jarraitzaile zuzenaren eginkizuna: Maitasunean bizi Jesus-en estiloa eredutzat arturik.

Pertsonak maitatu gabe, ingurua maitatu gabe, izadia maitatu gabe, Jainkoa maitatu gabe... gure bizitzak ez du zentzurik.

Maitatzea, Jainkoak digunez, pobreei leentasuna ematea da; Jainkoaren ezaugarri biziak eta sinesgarritasunez beteak izatea da; pazko misterioa bizitzea eta gozatzea.

Maitatzea, itx gutxitan erranik, gizakiagatik gurutzean il eta irugarren egunera piztu zen Jainkoa onartzea eta Aren bideetan ibiltzea da.

Artzalluz'tar Joxemari